

Ezina ekinez egina

Moda-modan dagoen Windows '95 sistema eragile berriak uste baino erabilpen gehiago izango du. Ingalaterrako Oxford Intelligent Machines izeneko konpainiak diseinatu berri du erabilpen horietako bat: elbarriei laguntzea. Horretarako Windows-ek kudeatzen duen PC-a eta robota integratu dituzte sistema bakar batean. Robotak beso artikulatuak ditu eta PC-aren aginduak betetz, objektuak manipulatzeko gaitasuna ematen du. Horrez landa, pro-

grama desberdinak erabiltzeko aukera ere eskaintzen du eta OIM konpainiak aurkeztu duen prototipoa esate baterako, Autocad diseinu-programaz baliatzeko gai da. Bere kasa mugimendurik egiteko gai ez diren pazienteek biziki eskertuko dute erabilpen berria.

Artritisaren tratamenduan aurrera

Artritis erreumatoidea sortzen duten faktoretako bat TNF izeneko substantzia izan liteke. TNF faktore erreumatoidea era natural batez agertzen da giza gorputzean. Aitzitik, ez ohiko hazkuntza agertzen du faktore horrek artritis erreumatoidea duten gaixoengan. Charing Ospitaleko medikuek burutu duten azken ikerketen zioa artritis erreumatoidearen jatorriak aztertzea zen eta agidanez, bete-betean asmatu dute oraingoan. Orain arte burutu diren entseien arabera, TNF faktorearen kontrako antigorputzak erabiliz gaixotasunaren sintomak arindu egiten dira, baina oraindik ez dute sintoma horiek erabat desagertaraztea lortu. Dakigunez, artritis-mota hori emakumeek pairatzen dute nagusiki, hogeita berrogeita hamar urte bitartean. Giltzaduren hantura eta

deformazioa eragiten du eta gaixotasun kronikotzat jotzen da. Jatorrian eragiten ez bada ere, TNFren antigorputzak erabiltzeak beste sendabideekiko abantaila handia du: besteek ez bezala, TNFren antigorputzek ez dute bigarren mailako ondoriorik eragiten. Erabat osatzea lortzen ez bada ere, pazientearen bizi-baldintzak orain arte ez bezala hobetzen ditu.

Zaletasuna gaixotasun bihurtzen denean

Jokoarekiko zaletasuna eta menpekotasunaren artean muga txiki eta estu bat baino ez dago. Berriki jakin ahal izan dugunez, muga hori jokalarien garunaren funtzionamendu okerrean datza. Azken urteotan makina bat saiakera burutu eta gero, ondorio horretara iritsi dira Chicago eta Illinoisko Unibertsitateetako ikerlariak, garunaren aktibitate elektrikoaren erregistroek horixe erakusten duela baieztatu baitute. Joko-egoera arrunt batean ari zirela, elektroentzefalograma bana egin zitzaizen bi jokalariri. Bata "osasuntsutzat" jo zuten ikerlariak, hots, jokoarekiko menpekotasunik gabea; beste jokalariek jokoarekiko gehiegizko zaletasuna zuela aurretik baze-



Jokoarekiko zaletasuna eta menpekotasunaren artean muga txiki eta estu bat baino ez dago. Berriki jakin ahal izan dugunez, muga hori jokalarien garunaren funtzionamendu okerrean datza.

Windows '95 sistema eragile berriak uste baino erabilpen gehiago izango du. Ingalaterrako Oxford Intelligent Machines izeneko konpainiak diseinatu berri du erabilpen horietako bat: ezinduei laguntzea.



kiten. Jokoan aurrera egin ahala, estres-egoera baten aurrean suertatu ziren bi jokalariek. Egoera bera izanik ere, elektroentzefalogramak erregistro elektriko zeharo desberdinak jaso zituen. Ludopatatzat jotako jokalarien kasuan esaterako, garunaren aktibitatea ohi baino altuagoa zela behatu zuten. Ikerlarien iritziz, aurre-rapauso handia da gaixotasun horren lehen aztarnak aurkitu izana. Jokoarekiko menpekotasuna disfunczio batean oinarritzen dela baieztatzeak arazoa konponbidean jar dezakeela uste da eta.

